
Infantil

2015
2016

Ez ditzagun ito



Geure aztarna ekologikoak planetako baliabideak agortzen ditu eta gizateria garatzeko aukerak ere murrizten ditu.

UTZI ZURE AZTARNA
POBREZIAREN AURKA
Zurekin, bat gehiago

sed Solidaridad | Educación | Desarrollo
PROYDE
25 PROYDE PROEGA
PROCLADE FUNDACIÓN
fundación proideba
PROIDE
EDIFICANDO Comunidad de Nazaret
PROCLADE YANAPAY

HELBURU OROKORRA

Naturaren mugaz jabetzea, eta giza espezieak bizirik jarraitzeko baliabide naturalen beharra zer neurritan duen ezagutzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Ikasleak beren inguruan sortutako zaborrak identifikatzeko, bereizteko, sailkatzeko eta birziklatzeko gai izatea.
- Haurrak sentsibilizatzea ingurumena zaintzeak duen garrantziari buruz.
- Uraren erabilera arduratsua bultzatzea.
- Garraio publikoa edo garraiobide ez-kutsatzaileak erabiltzeko kontzientziatzea.

EDUKIAK

Kontzeptuak

- Birziklatzea: birziklatzeko edukiontziak bereizten ikastea, eta gure inguru hurbilenean daudenak hobeto erabiltzen ikastea.
- Ozono-geruzarekin lotutako ingurumen-ekintzak ezagutzea: aztarna ekologikoa.
- Ura modu arduratsuan erabiltzea.
- Garraio publikoko eta kutsatzen ez duen garraioko moduak ezagutzea.

Prozedurak

- Pentsamendu-errutinak egitea: “konparatu eta erkatu” eta “ikusten dut, pentsatzen dut, nire buruari galdetzen diot”.
- Ipuinak irakurtzea.
- Bideoak.
- Sormen-lantegiak.

Jarrerak

- Birziklatzeak ingurumenean duen eraginari buruz gogoeta egitea.
- Gure ingurua errespetatzeak eta zaintzeak duen garrantzia balioestea, inguru hurbilenetik hasita, hau da, jolastokitik.
- Jokabide arduratsua izateko jarraibideak sustatzea ura erabiltzeko orduan.
- Garraio publikoa eta kutsatzen ez duten garraioak erabiltzearen onurak ikusteko gai izatea.

OINARRIZKO GAITASUNAK BARNERATZEKO EKARPENA.

- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- Mundu fisikoaren ezagutzarako eta harekiko elkarrekintzarako gaitasuna.
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
- Kultura- eta arte-gaitasuna.
- Ikasten ikasteko gaitasuna.

DENBORALIZAZIOA

Denboraren arabera eta taldearen beharren arabera hautatuko ditugu jarduerak.

Edukiak hainbat jardueratan banatuko dira, planteatutako helburuei erantzuteko.

METODOLOGIA.

Metodologia aktiboa izango da, jolasean oinarrituko da, eta sormena eta esperimentazioa sustatuko dira honako hauen bidez, ikasleen aurretiazko ezagutzetatik, esperientzietatik eta interesetatik abiatuta, betiere: ikaskuntza esanguratsuak, pentsamendu-errutinak, haurren askotariko adimenen paletak.

Unitate didaktikoa ardatz globalizatzailea da, eta helburuak, edukiak, jarduerak eta oinarrizko gaitasunak lotzen ditu.

Metodologia oinarritzeko **beste printzipio** hauek ere izango ditugu kontuan:

Sozializazioa: ikaskuntzarako hainbat egoeraren bitartez, taldekatzeko uneak eskainiko dira, laguntzeko jarrerak, lankidetzazkoak eta enpatia garatzeko.

Afektibotasuna: sentimenduek eta zirrarek sustatzen dituzte ikaskuntzak.

Jarduera eta esperimentazioa: manipulazioa eta esperimentazioa ahalbidetuko duten jarduerak planifikatuko dira, ikuspegi aktiboa emanez; izan ere, haurrak dira ikasteko eta irakasteko prozesuaren protagonistak.

Indibidualizazioa: haur bakoitzaren ezaugarri bereziak kontuan hartuko dira, haien bilakaera-unearen eta ezagutza mailen arabera egokituz eta garapen- eta ikaskuntza-erritmo desberdinak errespetatuz.



GARAPENA


0. ZER DA AZTARNA EKOLOGIKOA? (Irakaslea)

Aztarna ekologikoa ingurumenean sortzen dugun inpaktuaren adierazlea da. Kontsumitzen ditugun baliabide naturalen eta gure inguruan eskura ditugun baliabideen arteko desoreka neurtzen du.

Ikusi bideoa http://youtu.be/ -- mY D25Lmb8

1. IKASGELARAKO JARDUERAK

Askotariko adimenak lantzeko jarduerak.




Askotariko adimenak lantzeko jarduerak:

Hizkuntza: "Hostorik ez zuen zuhaitza" https://www.youtube.com/watch?v=BOoysk5y_fk.

Ipuinaren ulermena landuko dugu gero.

HOSTORIK EZ ZUEN ZUHAITZA



Bazen behin zuhaitz zatar bat, oso-oso zatarra zena eta hostorik ez zuena. Bakarrik zegoen mendian, eta ez zuen inoiz beste zuhaitzik ikusi. Horregatik, ez zekien zuhaitzek hostoak dituztela. Eta ez zekien ezta ere oso zatarra zela. Baina, egun batean, hauxe entzun zien haur batzuei:

-Hori zuhaitz ziztrina!

-Ez du ezertarako balio.

-Hostorik ere ez du eta!

Orduan, zuhaitza oso triste jarri zen, zatarra zela jakin baitzuen. Eta honela esan zion Eguzkiari:

-Zu oso boteretsua zara. Emango al dizkidazu hosto batzuk?

Eta Eguzkiak erantzun:

-Nik ezin diot hostorik eman zuhaitzari. Zoaz zu hostoen bila.

Eta zuhaitzak, orduan:

-Ezin dut. Nire hankak lurzoruan finkatuta daude.

Beste egun batean, Haize Grisari zuzendu zitzaion:

-Zu oso boteretsua zara. Emazkidazu hosto batzuk!

Eta Haize Grisak, orduan:

-Nik zuhaitzei hostoak kentzen dizkiet, baina ezin dizkiet eman. Ezin dizut lagundu.

Orduan, Euria igaro zen handik, eta esan zion:

-Euri andrea, nire oinak lurzoruan finkatuta daude. Ekarriko dizkidazu hosto batzuk nire adarrak apaintzeko?

Eta Euriak:

-Nik ezin dizut hostorik eman. Nik negar egiten dakit bakarrik. Zugatik negar egingo dut.

Eta Euriak alde egin zuen, negarrez.

-Ene, jauna, hau zoritxarra! Hostorik gabeko zuhaitz bat!

Zuhaitz gaixoa are gehiago tristatu zen. Honela esaten zuen:

-Boteretsuenengana jo dut eta ezin izan didate lagundu. Inork ezingo nau lagundu!

Baina, egun batean, haurrek esan zuten:

-Apain dezagun zuhaitz hau!

Koloretako papera ekarri zuten: gorria, berdea, urdina, horia... Zati txikiak moztu, eta zuhaitzean itsatsi zituzten. Handik gutxira, zuhaitza hostoz beteta zegoen. Hosto urdinez, gorriz, horiz eta berdez bete zen.

Eguzkia handik pasatu zen, eta begira-begira gelditu zen, ez baitzuen inoiz horren zuhaitz ederra ikusi.

Haize Grisa pasatu zen gero, eta bat-batean gelditu zen:

-Hara, begira zuhaitza! Hosto ederrak aurkitu ditu benetan!

Eta Haize Grisa inguruan biraka ibili zen, hosto bakar bat ere erauzi gabe.

Euria igaro zen, eta hosto gorri, urdin, hori eta berde haiek ikustean, negar egiteari utzi zion, eta esan zuen:

-Hau zoritxarra! Ezingo dut negar gehiago egin zuhaitz horrengatik!

Eta Euri andreak beste nonbaitera alde egin zuen negar egitera.

Ondoren, haurrak itzuli ziren, eta zuhaitzaren inguruan dantzan hasi ziren; zuhaitza pozarren zegoen hosto koloretsu haiekin.

Musika: "Murriztu, berrerabili eta birziklatu" abestia entzun https://www.youtube.com/watch?v=gKB_7MUPxT4.

Abestia ikasi, keinu bidez antzeztu, abestu…

Matemática: birziklatzearen gaia eta edukiontzien koloreak landu ondoren, egin seriazio bat, horiek ordezkatuko dituzten gometxekin: urdina – berdea - horia.

Naturalista: jolas-ordua amaitutakoan, jaso hondakinak jolastokian (ontziak, bilgarriak, paperak…), bereizi ikasgelan, eta egin horma-irudi bat. Egindako jarduera aztertu ondoren, egindakoari buruzko gogoeta egin

Espirituala: barnatasun-saioa: baso bat bistaratzea

> Isilik eta oinutsik sartuko gara barnatasun-gelan. Lastairetan etzango gara, eta begiak itxiko ditugu; minutu batzuez erlaxatzeko musika entzungo dugu, basoko soinuak… Txori bat entzuten da urrutian, haizea, zuhaitzen adarrak…, gertu dagoen iturburu bateko ura…
>
> https://www.youtube.com/watch?v=eQjhPO2h8SI&list=RDx7VCuqY1yXM&index=8

Soinu horiek baso ezkutu batetik datoz: garbi-garbi dago, zuhaitzez eta landarez beteta, txoriak, tximeletak eta katagorriak daude…, basoan gabiltza oinez, eta ez dago paperik edo botilarik lurrean…, ez dago zakarrik botata.

Hori da aurkitu nahi dugun basoa, besteek ere hori ikusteko aukera izatea nahi dugu…

GUZTIOK zaintzen badugu natura, naturaz gozatzeko aukera izango dugu…

Musika entzuten jarraituko dugu zenbait minutuz, eta, ondoren, bolumena jaisten joango gara.

Poliki-poliki, begiak irekiko ditugu, arnasa sakon hartuko dugu eta mugitzen hasiko gara…

Lastairan eserita, nola sentitu garen partekatuko dugu besteekin

Zinestesikoa: antzezpen bat egin:

- Ikasleak bi taldetan banatuko ditugu:
- *1. taldea natura da (landareak, animaliak, zuhaitzak….)
- *2. taldea kutsadura da, alferrik botatako ura, birziklatu gabeko gauzak…
- 2. taldea 1. taldearen inguruan mugituko da, eta horren gain duen eragin negatiboa ikusiko dugu. (Landareak ez dira haziko, animaliak hil egingo dira, zuhaitzek ez dute hostorik izango…..).

Basoaren barnealdean bizi den agure jakintsua agertuko da. Ondo ezagutzen ditu basoaren sekretuak. 2. taldekoak konbentzituko ditu, kutsa ez dezaten eta natura zain dezaten.

2. taldea aldatzen denean (jada ez du kutsatzen, ez du alferrik gastatzen eta birziklatu egiten du), 1. taldea hazi egingo da: harmonia nagusituko da, eta basoko biztanleak zoriontsu bizi dira. Paisaia zoragarria da

Artistikoa: zuhaitza janzteko hostoak egin, "Hostorik ez zuen zuhaitza" ipuinarekin lotuz.

Pertsona barnekoa: Óscar Pascasioren entzunaldia: "Las riberas del Pisuerga"; etzanda, erlaxatuta… Natura garbi dagoela imajinatu, eta pentsatu zer egin dezakegun garbi izaten laguntzeko eta hori partekatzeko (marrazki bat egin dezakete, unitatea amaitu arte ikasgela apaintzeko)

https://www.youtube.com/watch?v=we47xq8po4U


Pertsona artekoa: Lurraren gaineko aztarnari buruzko pentsamendu-errutina: "Ikusten dut – pentsatzen dut – nire buruari galdetzen diot".



IKUSTEN DUT	PENTSATZEN DUT	NIRE BURUARI GALDETZEN DIOT

MATERIAL OSAGARRIAK















Por cada luz que ahorres,
le regalas un respiro,
Por cada planta o árbol que
cuides,
le ofreces un aliento,
Por cada basura que recojas,
le otorgas una caricia,



The Pirate “eskua berdea”

Dakiten hori Karibeko irla batean pirata “Green Hand by lurperatutako altxor bat egin ziren kontatzen dute. ‘

Horrelako goitizena beti zuhaitz txiki bat lurreratzea landatu eta lehorrera zapaldu egitea lortu zuen.

Sakeletan lur hainbeste, metatutako haziak erne dute ...

Leyenda altxor ehiztari askok jarraitu zion, inork orain arte gai ezkutuko bularrean aurkitu.

Bi lagun Lionel, aka “sudurra big” eta Nico arte, aka “beltza” hasteko Jaurlaritzak haitzulo baten ondoan, eta, beraz, lan handirik eta zulo ondoren heldu ziranean, Gruyere gazta lekua utziz, altxorra aurkitu.

Lagun ziren elkarrekin delako ... ireki eta haziak asko aurkitu.

Tamaina eta kolore guztietako haziak paketeak!

Eta ... kondaira arabera, bi lagun horiek eta ez zekien zer haziak egin, landaketa erabaki.

Eta ... leku eskualde osoa estaltzeko baso handi bat lorez betetako batera joan ziren denak lurperatzen, ziren. Animalia basati eta hegazti lo egin eta bertan bizi maite esaten dute.

Eta orduz geroztik, irla handia da. Bisitatzen dutenentzat benetako altxor bat.

Hau izan zen pirata bularrean “Green Hand” altxor handiena bihurtu

